

9. IKASGAIA

LANKIDETZA ETA BANAKETAKO KONTRATUAK

Laburpena

1. KOMISIO-KONTRATUA
 - 1.1 Komisio-hartzailearen jarduera eta obligazioak
 - 1.2 Komisio-emailearen obligazioak
 - 1.3 Supostu bereziak
 - 1.4 Kontratuaren iraungipena
2. AGENTZIA-KONTRATUA
 - 2.1 Edukia
 - 2.2 Iraungipena
3. ARTEKARITZA-KONTRATUA
4. EMAKIDA-KONTRATUA
 - 4.1 Edukia
 - 4.2 Iraungipena. Agentzia-kontratuaren aplikazio analogikoa
5. FRANKIZIA-KONTRATUA
6. GORDAILU-KONTRATUA
7. KONTU-KORRONTE KONTRATUA
 - 7.1 Kontratuaren edukia eta efektuak
 - 7.2 Kontua ixtea
 - 7.3 Iraungipena

1. KOMISIO-KONTRATUA

Historikoki komisioa garatu izan da salerosketako kontratuari lotuta. Honek gaur egun garrantzi apur bat galdu du lankidetzako kontratu-mota berriren sorrera dela eta, baina inportantea izaten jarraitzen du zenbait eremutan: balore-tituluen negoziaketan, burtsa eta balioen negoziotan, zenbait merkatu espezialdutan (ad. artea, antikuarioak, nekazaritza, abelzaintza). Bestalde, bada komisio berezi bat, garraio-komisioa, jatorrizko salerosketa-komisioaren bestelakoa, salgaien edo ta pertsonen garraio-kontratuari loturikoa (ad: garraio-agentziak, bidai-agentziak).

Komisioa berez mandatua da (KZ 1709 art.) merkataritzako elementuekin: bere objektua merkataritzako egintza edo kontratu bat izango da (ez da iraupenezko harremana) eta gutxienez bitariko alderdiren batek merkataria izan behar du (MK 244 art.). Adostasunezko kontratua da (*consensual*), adostasuna ematearekin perfektutzen da. Hau izan daiteke espresua edo tazitua, komisioa betetzeko egintzaren bat burutzen bada (MK 249 art.). Baina isiltasunak ere baditu ondorioak. Portaera pasiboak, hots, enkargua ez errefusatzeak, komisio-hartzaileari indemnizatzeako obligazioa ekar diezaioke, isiltasunak onarpena adierazi dezakelako (MK 248 art. *a contrario* interpretatuaz). Komisio-kontratua onartu nahi ez duenari jarrera aktiboa izateko obligazioa ezartzen zaio, komisioa errefusatzea (MK 248 art.). Kontratua perfektionatu aurretik, komisioa errefusatzea komisio-hartzaile profesionalari dagokion obligazioa da, legezko obligazioa (ez kontraktuala). Horren ondorioz, komisioa eman zaionari zenbait obligazio ezartzen zaizkio: batetik, komisioa errefusatu izana lehen bait lehen jakinaraztea eta, bestetik, gauzen zaintza (edo judizialki gordailatzea). Obligazio hauen ez-betetzeak komisio-emaileari kalteak ordaindu beharra ekartzen dio.

1.1. Komisio-hartzailearen jarduera eta obligazioak

Komisio-hartzaileak jardun dezake bere izenean edota komisio-emaiaren izenean (MK 245 art.). Bere izenean jarduten duenean (MK 246 art.) ordezkapena ez da zuzena. Komisio-emaiela exekuzio-kontratutik at geratuko da. Komisio-hartzaileak bere gain hartuko ditu hirugarrenarekin itundutako kontratuko obligazio eta eskubideak. Komisio-hartzailea izango da egiten duen kontratuaren erantzule zuzena eta, ondorioz, hirugarrenari erreklamatzeko aktiboki legitimatuta egongo da. Kasu honetan komisio-hartzailea obligatua dago komisio-emaiela nor den sekretupean gordetzera, *honek hala agintzen dionean*. Ez dauka aldiz, kontratu-egiten duen hirugarrenari buruzko sekretua gordetzeko eskubiderik.

Komisio-hartzaileak komisio-emaiaren izenean jarduten duenean (MK 247 art.) ordezkapena zuzena da. Komisio-emaiela akzioa izango du, komisio-hartzaileak kontratu egiten duen hirugarrenaren aurka. Baina komisio-emaiela komisioaren existentzia ukatu ezker, komisio-hartzaileak komisio-kontratua frogatu beharko du obligaturik gera ez dadin (MK 247.II *in fine*).

Komisioa onartu ondoren, komisio-hartzaileak komisio-kontratua exekutatu behar du, bestela erantzukizuna izango du (MK 252 art.). Baina kontratuaren exekuzioa eten dezake, beharrezko dituen fondoan hornidura jaso arte (komisio-hartzaileak fondoak aurreratzeko konpromezurik hartu ez badu, behintzat) (MK 250, 251 art.)

Komisioa exekutatuzeko komisio-hartzaileak argitasunak, manuak, eskatu behar ditu eta bete (MK 256.1, 254 art.). Instrukzioek xehetasun-maila desberdina izan dezakete. Batzutan komisio-emaileak xehetasun handiz ezartzen ditu komisio-hartzaileak hirugarrenarekin kontratu-egiterakoan bete beharrek baldintzak. Hala adierazi ezean, komisio-hartzaileak komisio-emaileari galdetu beharko lioke (MK 255.I art.). Beste batzutan komisio-emaileak komisio-hartzaileari egin beharrek kontratuaren elementu batzuk adierazten dizkio, gainontzeko xehetasunak bere esku utziaz. Gerta daiteke ere komisio-emaileak kontratuaren funtsezko elementuak ezartzea soilik (ad: erosi beharrek gauza eta prezioa).

Azken kasu hauetan kontratuaren edukia osatzeko irizpide batzuk daude (MK 255.II art.). Komisio-hartzaileak jardun behar du merkataritzako usadioak jarraituz, prudentziaz, arreta bereziaz, '*negozioa berea bailitzan*'. Hau da, merkatarari ordenatuaren ohiko arreta baino zorrotzagoa galdatzen zaio. Bere eremu profesionalari dagokion arreta dela ulertu behar da. Horrela, ezin du ohikoak baino kostuzkoagoak diren baldintzekin kontratu egin. Komisio-emailearen aurrean erantzun beharko du kasu horretan (MK 258 art.), berriak jakinarazi behar dizkio komisio-emaileari (MK 260 art.), ezin du ere epekako salmentarik itundu (MK 270 art.). KZ 1719 artikuluan galdatzen den arreta apalagoa da.

Komisio-hartzaileak ezin du eman zaizkion instrukzioen muga gainditu ez eta haien kontra aritu ere (MK 256.I eta 254 art.). Gauza bera da KZ 1714 eta 1715 artikulutan. Mugak gainditzearen ondorioak KZ 1125, 1727 artikulutan daude. Baina desegokiak iruditu ezker, hartutako instrukzioak utzi eta komisio-emailearentzat komenigarriagoak ikusten dituen beste irizpide batzuk jarrai al ditzake? Hau da, mandatu zibilaren KZ 1715 artikulua komisiolari aplikagarri al zaio? Badirudi ezetz, hartutako instrukzioak jarraitu behar direla edozein kasutan (Ik. MK 255 art. *in fine*: '*... podrá suspender ...*'). Horrela ez du erantzukizunik izango kontratua ez betetzeagatik.

Komisio-hartzaileak bere egitekoa pertsonalki (edo bere lankideen bitartez) burutu behar du, komisio-emaileak ordezkoa izendatzeko baimenik ematen ez badio behintzat (MK 261, 296 art., KZ 1721, 1722 art.). Komisio-hartzaileak baimenik gabe, delegazioa edo ordezkapena egin ezkeru, erantzukizun zuzena izango du kontratua ez betetzeagatik (MK 261 art.). Bestalde, komisio-hartzaileak ordeko pertsona bat izendatzen badu komisio-emailearen baimenarekin, komisio-hartzailea izango da erantzule ordezkoa berak hautatu izan badu eta, bestela, komisio-emailea (MK 262 art.; KZ 1721, 1722. art.).

Obligazioei dagokienez, komisio-hartzaileak komisio-emaileari etengabe negozioen martxaren berri eman behar dio (MK 260 art.) eta kontuak ere eman behar dizkio (MK 263 art.). Komisio-emailearen interesak babestera behartua dago (MK 258, 264, 268, 269, 267, 273 art.), lankidetzakontratua bait da. Horren ondorioz, *autosarrera* debekatuta dago (MK 267 art.). Komisio-hartzaileari *kontraparte* egitearen debekua ezartzen zaio, bere interesean edota beste baten interesean bada ere, susmagarria delako aldi berean bi alderdien interesak defendatu ahal izatea (komisio-emailearenak eta bereak edo beste batenak). Debeku honek ez du zentzurik gauzek trafikoan, merkatuko prezioa edo kotizazio ofiziala duten kasuetan. Horregatik balioen burtsan alderantzizko ordenak aplikatzea onartzen da. Autosarrera onartzen da, komisio-hartzaileak kontraparteari bere izenean ari dela adierazten badio (*Ley 24/1988, de 28 de julio de Mercado de Valores*, 40 art.)

Autosarrerak zenbait ondorio ekartzen ditu. Komisio-hartzaileak komisio-emailearen baimenik gabe egiten badu autosarrera, exekuzio-kontratua ez da komisio-emailearentzat eraginkorra izango. Gogora dezagun, komisio-hartzaileak instrukzioak jarraitzeko obligazioa eta behar denean kontsulta egiteko obligazioa dauzkala (MK 253, 255 art.). Baina autosarrera komisio-emailearen baimenarekin izan bada, zer? Hemen iritzi desberdinak agertzen dira.

Batzurentzat komisio-hartzaileak exekuzio-kontratuan parte hartzen badu, jada ez da komisio-hartzaile izango eta ez du komisioaren saria jasotzeko eskubiderik izango. Beste batzuren ustez aldiz, exekuzio-kontratuaren alboan komisio-kontratuak bizirik jarraitzen du, ez da iraungitzen, komisio-hartzailearen eta emailearen interesean. Komisio-hartzaileak egindakoaren kontu emango du, komisio-emailearen interesik sakrifikatu ez duela azaltzeko. Ondorioz,

komisio-emaileak agindutakoa betetzen bada, komisio-hartzaileak saria jasotzeko eskubidea izango du.

Komisio-hartzaileak erantzukizuna du jasotako fondoan gainean (enkargua burutzeko erabili behar ditu instrukzioak hertsiki beteaz, MK 264 art.), baita jasotako salgaien gainean (MK 265 art.) eta bere edukitzepean dauden ondasunen gainean ere, kontserbatu egin behar ditu (MK 266 art.). Obligazio hauen erantzule da komisio-hartzailea eta, ondorioz, komisio-emaileari dagokion kalte-ordaina egin beharko dio bere kasuan, bai komisioa errefusatzeagatik (MK 248 art.) bai eta komisioa ez betetzeagatik kausa legalik gabe (MK 252 art.).

1.2. Komisio-emailearen obligazioak

Komisioa ordaindu egin behar dela presumitzen da (MK 277 art.) eta mandatua, berriz, ez (KZ 1711 art.). Kontrako itun espresurik ezean, komisio-emaileak hartzaileari komisioaren **saria** ordaindu behar dio. Gehienetan hainbateko edo portzentai bat izaten da, baina kopuru finkoa ere ezar daiteke, bestela, usadioen arabera ezarriko da.

Problema da, MK-ak ez duela komisioa kobratzeko eskubidea noiz jaiotzen den adierazten. Hori argitzeko irizpedea kontratuaren helburua izan daiteke. Baina zein da helburu hori? Komisio-hartzaileak hirugarrenarekin kontratua egitea lortzea (ad. erosketa, salmenta, garraioa)? Ala hirugarrenak exekuzio-kontratua betetzea? Auzitegi Gorenaren iritziz saria jasotzeko eskubidea sortzen da hirugarrenak exekuzio-kontratua betetakoan (salbuespena egiten du, hirugarrenak kontratua ez betetzearen errua komisio-emailearena bada). Orduan, sortuko da saria ordaintzeko obligazioa eta horretarako jartzen da askotan bermezko klausula *amaiera onik ezean (salvo buen fin)*.

Hala ere bada iritzi kritikorik, komisioan bi egoera bereizten dituen (Martínez Sanz, F.): komisio-hartzaileak emailearen izenean jarduten duenean eta bere izenean jarduten duenean. Lehenengo kasuan saria jasotzeko eskubidea sortzen da komisio-hartzaileak hirugarrenarekin negozioa egiten duenean, orduan sortzen baita komisio-emaileak izan nahi zuen harreman kontraktuala. Komisio-hartzaileak bere izenean jarduten duenean, ordea, saria jasotzeko eskubidea sortzen da hirugarrenak kontratua betetakoan. Kasu honetan

komisio-emailearen helburua ez bait da hirugarrenarekin harreman kontraktuala izatea, aldiz bere izena isilpean gorde nahi du.

Edozein kasutan, komisio-emaileak hartzaileari komisioa burutzeko izan dituen **gastuak** ordaindu behar dizkio (MK 278, 253 art.), beti ere komisio-hartzaileak emailearen kontura eta bere interesean jarduten duenean.

Komisio-hartzaileak komisioa burutzeko fondoak behar ditu (dirua, salgaiak ...). Ohikoena komisio-emaileak **fondoan hornidura** egitea da, baina ez beti. Beharrezkoa denean, fondoan hornidura jaso arte, komisio-hartzaileak ez dauka komisioa burutzeko obligaziorik, ezin zaio galdatu komisioa ez betezeagatik erantzukizunik (MK 250 art.). Baina itundu daiteke ere komisio-hartzaileak fondoak aurreratuko dituela (MK 251 art.). Orduan komisioaren saria garestiagoa izango da. (Komisio-emailearen konkurtso kasuan, hartzaileak ez du fondorik aurreratu beahr, komisioaren saririk ez bait du jasoko).

MK-ak komisio-hartzailearen esku berme batzuk jartzen ditu, komisioaren saria kobratu eta egindako gastuak berreskuratu ahal izateko, **komisio hartzailearen pribilegioa** deiturikoa (MK 276 art.). Batetik, jasotako gauzak (erositako gauzak) erretentzeko eskubidea du. Bestetik, saldutako ondasunen prezioarekin kobratzeko lehentasuna du, komisio-emailearen eta honen hartzekodunen aurretik (Salbuespena: garraiariak lehentasuna dauka garraiatutako ondasunekin kobratzeko). Pribilegio hauek salerosketa kasurako pentsatuak daude. Doktrinak beste kasu batzutara hedatzea ezatabaidatzen du.

1.3. Supostu bereziak

Erosketa edo salmentarako komisioa

Ordezkapena zuzena denean, komisio-emailearen izenean jarduten denean, saldu edo erositako gauzen gaineko efektu errealak komisio-emaile eta hirugarrenaren artean gertatzen dira zuzen zuzenean. Komisio-hartzailea exekuzio-kontratuan arrotza da (kontuz, dena den, MK 247 art. *in fine* jasotako kasuarekin).

Ordezkapena zuzena ez denean, komisio-hartzaileak bere izenean jarduten du (MK 246 art.). Ez du komisio-emailearentzat kontratu egiten duenik adierazten. Beraz, berarentzat erosi edo saltzen ari denaren itxura agertzen du hirugarrenen aurrean eta honen inguruan zenbait arazo sor daitezke.

Komisioa zerbait erosteko denean, gauza lehendabizi komisio-hartzailearen jabegoan sartzen da, ondoren komisio-emailearen jabegora transmititzeko (MK 246 art.) eta honek problemak ekar ditzake.

- 1. Adibidea. Komisio-hartzaileak bere izenean baina komisio-hartzailearen kontura erositako ondasuna bere hartzekodun batek erreklamaturako ordainketa egiteko erabiltzen du. Nork du lehentasuna ondasunarekiko, bere hartzekodunak ala komisio-emaileak? Komisio-emailearentzat, MK-an ez dago komisio-hartzaileak bere kontura erositako gauzen erreklamazioa aurrikusten duen arau expresurik. Komisio-emaileak ezin izango du beste hartzekodunaren erreklamaziorik geldiarazi. Beste kontu bat da komisio-hartzaileari kalte-ordaina eskatzea.
- 2. Adibidea. Komisio-hartzailearen konkurtsoa deklaritzen da. Komisio-emaileak ('bere ondasuna') masatik banantzeko eskubiderik ba al du? Ala hartzekodunen konkurtsoan parte hartu behar du? Lehen masatik banantzeko eskubidea zeukan (MK 908, 909.4 art.), orain berriz, banaketa ez da horren erraza (*Ley 22/2003, de 9 de julio, ley concursal, LC*, 80 eta 81.art.).

Komisioa zerbait saltzeko denean, komisio-hartzaileak gauzaren edukitza eskuratzen du (jabetzarik ez) hirugarrenei saldu ahal izateko eta honek ere arazoak sor ditzake.

- 1. Adibidea. Komisio-hartzailearen konkurtsoa gertatzen bada, komisio-emaileak ondasuna masatik banantzeko eskubidea izango du, berea delako (LC 80 eta 81 art.).
- 2. Adibidea. Hirugarrenak hartzekodun bat dauka eta bere zorra kobratzea erreklamatzeko dio. Ondasun horrekin ordaindu ahal izango dio? Fede oneko hirugarrena babestua dago komisio-emailearekiko eta, ondorioz, bere hartzekodunak baita ere. Hauek komisio-emailearekiko lehentasuna izango dute (ik. KZ 464 art., *a non domino* eskuratzearen kasua).

Bermezko komisioa

Hirugarrenak exekuzio-kontratua urratzen badu, komisio-hartzaileak ez du saria kobratzeko eskubiderik izango, baina urrapenagatik ez du erantzukizunik izango ere. Dena den, bada komisio mota berezi bat itundu daitekena: bermezko komisioa, alegia. Orduan bai, komisio-hartzaileak hirugarrenak eginiko kontratuaren urrapenagatik erantzule izango da (MK 272 art., erantzukizun solidaria, exkusiozko onurarekin. *'Star del credere'*). Kasu horretan komisio-saria handiagoa izango da.

Honen helburua kontratuaren amaiera ona lortzea da, komisio-hartzaileak kontratukide serioak bilatzea. Kasu batzutarako legez ere ezarri izan da (ik. LMV 41 art. burtsa eta balioen agentzia eta sozietateen kasurako, MK 379 art. garraioaren komisio-hartzailearentzako)

Figura honen izaera juridikoa aztertzerakoan antzekotasunak ikusten dira beste batzurekin: fidantzarekin edota kredituaren aseguruarekin. Beste batzuk bermezko klausula berezi bat dela iritzi diote. Praktikan, efektuak fidantzaren antzekoak dira: komisio-hartzailea erantzule izango da soilik hirugarrenak prestazioa betetzen ez duenean. Baina honek baditu bere mugak, ez da erantzule izango: ezinbesteko edo ustekabeko kasutan edota kontratu-urrapena komisio-emaiarena izan bada. Gainera, inoiz ez du hirugarrenak izango lukeen erantzukizuna baino zama handiagorik hartuko bere gain (KZ 1826 art.). Bestalde, hirugarrenaren ordezkari kontratua beteko balu, komisio-emaiaren lekuan subrogatuko litzateke hirugarrenari ordainketa galdatzeko.

1.4. Kontratuaren iraungipena

Kontratuaren iraungipen-kausa batzuk orokorrak dira: epea amaitzea, enkargua betetzea edota edozein alderdik bere obligazioa betetzeko ezintasuna gertatzea. Horiez gain badira beste iraungipen-kausa berezi batzuk, bai mandatuarentzako (KZ 1732 art.) bai eta komisioarentzako ere: kontraerabakia (errebokazioa) (MK 279 art.); mandatu-hartzailearen errenuntzia (MK 248 art.) eta mandatu-hartzaile edo emaiaren heriotza, edo kaudimengabezia (MK 280 art.).

Komisio-hartzailearen heriotze edo ezgaitzeagatik kontratua iraungi egiten da (MK 280 art.). Aldiz, komisio-emaiaren heriotzagatik ez da iraungitzen. Arau

honen helburua da enpresaren iraupena bermatzea, baita tituludunaren heriotza gertatzen denean ere.

Bestalde, komisiio-emaileak enkargua erreboka dezake (MK 279 art.) eta gai honek arazo ugari sortzen du. Errebokatzeko ahalmena noraino hedatzen da? Zeintzu dira mugak? Antzerako beste kontratu batzuri ere aplikatzea posible al da? Kontratu hau ez da iraupenezkoa. Iraupenezkotan kontratua desegiteko printzipio orokorra alde bien onespenerekin egitea da baina MK 279 artikulua erregela orokor honen salbuespena ezartzen du. Auzitegi Gorena artikulua honen aplikazio zabala egitearen kontra agertzen da.

- Iraupenezkoak diren kontratuetan (ad: emakida edo agentzia, komisiioaren antzekoak direnak) analogiaz MK 279 artikulua aplikatu nahi izan da. Baina kontratu horietan ohizkoa da epe bat izatea, horregatik Auzitegi Gorenak ez du honen aplikazio analogikorik onartzen. MK 279 artikuluko errebokazio-ahalmena komisiio-harremanetan beharrezkoa den konfidantzagatik justifikatzen dela dio. Gainera arau hau dispositiboa da eta komisiio-emaileak ekidin dezake errebokaezineko epe bat ezarriaz.
- Komisiio-emaile eta hartzailearen interes komuneko komisiio-kontratuetan ezta ere. Adibidez, komisiio-hartzaileak zor bat ordaintzearen truke, gauza batzuk saltzeko edo faktura bat kobratzeko enkargua hartzen duenean, kasu horretan, komisiio-hartzailea izendatzeko kausak komisiioa errebokaezina egiten dutela iritzi dio Auzitegi Gorenak.

Edozein kasutan, komisiio-hartzaileak hirugarrenarekin kontratu egin badu, errebokazioa ezinezkoa da. Oraindik kontraturik egin ez badu, errebokazioa posible da, printzipioz. Baina orduan, komisiio-hartzailea indemnitzatu behar al da? Honi buruz ez da ezer esaten Kodean, beraz esan daiteke ez zaiola indemnizaziorik zor, baina egindako gastuak ordaindu beharko zaizkiola. Eta errebokazioa fede txarrez egin izan bada? Adibidez, komisiio-hartzaileak aurkitutako hirugarrenarekin kontratu egin badu komisiio-emaileak? Orduan noski indemnitzatu beharko du, ordaindu beharko dizkio: gastuak, komisiioaren saria eta, bere kasuan, irabazteari utzi diona (*lucro cesante*). Errebokaezintasunezko kasu hauek jurisprudentziaren arabera aplikagarri dira baita mandatuarentzat ere.

Errebokazioaren ondorioak honako hauek dira:

- Komisio-emaileak errebokatu ezkeror, hartzaileari eginiko gastuak ordaindu beharko dizkio.
- Komisio-emaileak errebokazioa hartzaileari jakinarazi aurretik honek egindako eragiketekin lotuta geratzen da.
- Komisio-hartzaileak aurretik eragiketarik burutu izan ez badu, ez da obligaziorik sortzen (ez du saria jasotzeko eskubiderik, ez eta ere gastuak ordaintzeko obligaziorik, adibidez bidai-agentzian egindako erreserbaren anulazioa).

Azkenik aipatu behar da komisio-hartzileari ez zaiola mandatu-hartzaileak duen uko egiteko ahalmenik aitortzen (KZ 1732.2 art.). Honen arrazoia da, gehienetan profesional bat izango dela komisio-hartzailea. MK 252 artikuluan oinarrituaz, legeko kausaren bat galdatzen zaio horretarako (adibidez, obligazioa betetzeko ezintasuna gertatzea).

2. AGENTZIA-KONTRATUA

Kontratu honen erabilera asko zabaldu da. Komisioaren antzekoa da eta lege propioa izan aurretik, komisioaren araudia aplikatzen zitzaion, baita lan zuzenbidea ere, merkataritzako ordezkari ziren langile berezien araudia. Agentzia-kontratuaren legea (*Ley 12/1992 Legea, de 27 de mayo, de contrato de agencia, LCA*) europar direktiba baten ondorioa da (Direktiba 653/CEE, 1986.12.18.koa), honen bitartez armonizatu bait dira merkataritzako agente independenteei buruzko legedi estatalak. Izaera '*inperatiboa*' du (LCA 3 art.).

Agenteak merkataritzako eragiketak sustatzen ditu (negoziatu, bezeroak bilatu) edota sustatu eta burutzen ditu, ordezkatzeko duen enpresariaren izenean eta bere kontura (LCA 1 art.). Eragiketa horiek modu askotakoak izan izan daitezke (Direktiba, salgaien salerosketari buruzkoa da soilik). Agentea pertsona fisiko edo juridiko independentea da, beste enpresari bat da, ez da langile bat, ez dago ordezkatzeko duen enpresariaren menpe. Antolaketa autonomoa du, bere jardura profesionala eta lan-denbora irizpide propioz antolatzen du (LCA 2 art.). Agenteak ez du bere kontura jarduten besteren kontura baizik, enpresari baten edo gehiagoren kontura. Obligazioak hartzen dituenean, besteren izenean eta besteren kontura hartzen ditu. Bere jarduerari ez dagokio merkataritzako eragiketetan pertsonalki konpromezu-hartzea, baizik eta ordezkatzeko duen enpresaria lotzea (LCA 6 art.). Kontratuak sustatu eta

gainera enpresariaren izenean burutzeko ordezkapenerako ahalordea behar du. Oro har, agenteak ez du besteren kontura burutzen dituen eragiketen arriskua bere gain hartzen. Baina badira salbuespenak. Agenteak burutzen dituen eragiketak bermatzeko obligazioa har dezake. Obligazio hori idatziz jarriko da, ordainean jasoko duen komisioren kopurua adieraziaz (LCA 19 art.).

Kontratu hau iraupenezkoa da, denbora zehatz edo zehaztugabe baterako itundu daiteke (LCA 23 art.). Bi alderdien arteko harremana konfidantzakoa denez (*intuitu personae*), fede onaren printzipioak berebiziko garrantzia hartzen du (ik. KZ 1258 eta MK 57 art.). Kostubidezko kontratua da, agentearen jardura ordaindu behar da (LCA 1, 10.c eta 11 art.). Kontratuan bertan ordainketari buruz deus ez esateak ez du asan nahi agentearen egitekoa dohain denik. Usarioen arabera bete beharko da hutsuena eta, egoeraren arabera, arrazoizkoa den saria ordainduko zaio agenteari. Kontratuaren forma askea da, lege ez da forma berezirik aurrikusten, kontratua alderdi biren adostasunez perfektutzen da. Baina alderdi bakoitzak besteari edozein momentutan agentzia-kontratua idatziz jasotzea galda diezaioke, bere kasuan sartu izan diren aldaketak adieraziaz (LCA 22 art.). Kontratua dokumentuan jasotzea ez da baliozko ukabehar bat, aldiz legeak kontratu egin ondoren erabakitako aldaketak jaso eta adierazteko alderdientzat arautzen duen ahalbidea da. Hala ere formazko askatasunaren inguruan badira salbuespenak. Zenbait klausula nahitaez idatziz jaso beharko dira baliozkoak izan daitezen, alegia, bermezko klausulak (LCA 19 art.) eta lehiarik ez egiteko klausulak (LCA 21 art.). Honekin alderdi ahulena babestu nahi izan da.

2.1. Edukia

Agentearen zeregina enpresari nagusiarentzat bezeria lortzea da. Horretarako, enpresari eta hirugarrenen artean kontratuak egitea lortzeko, agenteak beharrezko diren aurretiazko egintzak burutu beharko ditu (LCA 5.1 art.). Agentearen funtzioa ez da enpresariaren izenean kontratu egitea (LCA 6 art), hala ere egin dezake, baina horretarako ahalorde espresua behar du. Enpresariaren izenean kontratu-egin dezake, baina elementu hau borondatezkoa da. Ez da agentzia-kontratuaren funtsezko elementua. Ahalordetzeak ez du formazko ukanbeharrik bete behar, izan daiteke: idatzizkoa, ahozkoa, egintzetatik eratorria.

Aurkako pakturik ezean, agenteak enpresari anitzen kontura ere jardun dezake, baina muga batzurekin: lehia egiteko debekua dauka. Enpresari anitz horien ekoizkinak edo zerbitzuak berdinak, berdintsuak edo antzekoak badira, lehendabizi kontratu egin dueneko enpresariaren onespena behar du (LCA 7 art.). Edozein kasutan, agentearen obligazioak dira (LAC 9 art.): leialtasunez, fede onez eta merkataritza ordenatuaren arretaz jardutea; enpresariaren interesak babestea; informazioa ematea (bereziki hirugarrenen kaudimengabeziari buruz); emandako instrukzioak jarraitzea; enpresariaren izenenan erreklamazioak jasotzea eta enpresari bakoitzaren eragiketen kontabilitate banandua eramatea.

Enpresariari dagokionez, agenteari bere jarduera erraztu behar dio muestrarioak, katalogoak, tarifak eta bestelako dokumentuak eskura ipiniaz; beharrezko informazioak emanaz (LCA 10 eta 15 art.). Gainera agenteari jakinarazi behar dio komunikatutako eragiketa onartu edo baztertuko duen (15 egun) eta eragiketa burutu den, ala ez, edo soilik partzialki (LCA 10 art.). Ohikoa izaten da ere agentearen alde zonalde batetarako eksklusibotasuneko obligazioa hartzea, hau da, ez duela beste agenterik izango eta berak ere ez duela bertan jardungo.

Baita ere agenteari saria ordaintzeko obligazioa dauka (LCA 10.2.c, 11 art. e.o.). Saria izan daiteke: a) ordainsari finkoa; b) *komisioa*, sustatutako edo egindako eragiketa-kopuruaren edo haien balioen arabera ordainketa (Hau da sistemarik hedatuena); c) bien arteko nahasketa. Gastuen ordainketa, aurkako itunik ez bada, ez da obligaziozkoa. Agenteak ez dauka bere jarduera profesionaletik sortutako gastuak galdatzeko eskubiderik (18 LCA art.). Sariaren komisioa kalkulatzeko kontuan izango dira honako eragiketa hauek:

- Batetik, gentzia-kontratua indarrean egonik enpresariak burutu dituen eragiketak (LCA 12 art.): agentearen parte hartzeari esker egindakoak; agenteak lehenago antzerako eragiketa batentzat harremanetan jarritako pertsona berarekin egindakoak eta agenteak zona geografiko edo pertsona talde-baten gaineko eksklusibotasuna izatearen kasuan, bertako norbaitekin egindakoak.
- Bestetik, agentzia-kontratua iraungi ondoren enpresariak burutu dituen eragiketak (LCA 13 art.): agentearen parte hartzeari esker egindakoak (iraungi osteko hiru hilabetetan) eta agentzia-kontratua iraungi aurretik

agenteak edo enpresariak jasotako kontratu- eskaerak (beti ere agenteak, kontratua indarrean egonik, komisioa jasotzeko eskubidea izango balu).

Komisioa jasotzeko eskubidea sortzen da kontratuaren exekuzioa gertatutakoan (LCA 14 art.). Alderdiak ezin dute arau hau aldatu. Ez da eskubiderik sortzen, eta jaio bada iraungi egingo da, agenteak prestatutako eragiketa enpresariari egozgarri ez zaio kausagatik burutzen ez bada (LCA 17.art.). Ordainketa egiteko hilabeteko epea dago (LCA 16 art.).

Esan bezala agenteak ezin dio enpresari nagusiari lehiarik egin. Ezin du bere kontura, edo beste enpresari baten kontura, agentzia-kontratuaren objektu diren ondasun edo zerbitzu berdin edo antzerakoen gainean kontraturik egin, bestelakorik erabakitzen ez badute behintzat (LCA 7 art.). Kasu honetan, agenteak bere kontura edo beste enpresari batzuren kontura jardun ahal izango balu, bakoitzaren eragiketei buruzko kontabilitate banandua eraman beharko luke (LCA 9.2.e art.). Baina kontratua iraungi ondoren ere iraun dezake lehia egiteko debekuak, alderdiak hala erabakitzen badute. Idatziz adierazi beharko da eta mugapen batzu ditu denborazkoak, geografikoak edo pertsona-talde baten gainekoak eta agentea aritu zeneko ondasun edo zerbitzuen gainekoak (LCA 20, 21 art.).

2.2. Iraungipena

Kontratua iraungitzearen kausak dira: agentearen heriotza (LCA 27 art.); epemuga betetzea, denbora mugatukoetan (LCA 24 art.) eta kontratuaren salaketa, eperik ez dutenetan (LCA 23 art.). Kasu hauetan, alderdiak kontratua salatzeke ahalmena daukate. Horretarako aurreabisua galdatzen da, idatziz egitea, epe batzuren barruan, hala ere alderdiak zenbait itun egin dezakete (LCA 25 art.). Hala ere badira salbuespenezko kasuak, aurreabisurik behar ez dutenak, beste alderdiaren kontratu-urrapena edo kaudimengabezi egoeran (LCA 26 art.).

Azkenik aipatu behar da, agian legeak kontratu honentzako ezarri zuen aspekturik esanguratsuena, alegia, kontratuaren ireaungipenak agentearentzat ekar dezaken medeapena. Agenteak eskubidea izan dezake ekarritako bezariagatik kalte-ordaina jasotzeko, bere kontratu-garaian egindako bezero berriek enpresariarentzat abantaila nabarmenak sortzen badituzte eta bidezkoa bada bere egoerako baldintzen arabera (ad. lehiarik ez egiteko klausula izatea,

komisioak galtzea, e.a., LCA 28 art.). Baita ere kalte-galeragatik indemnizazioa jasotzeko eskubidea izan dezake, eperik gabeko kontratuetan enpresariak kontratua salatzeagatik sor ditzaken kalteengatik (LCA 29 art.). Bi indemnizazio hauek bateragarriak dira. Hala ere badira medeapen-eskubiderik gabeko supostuak (LCA 30 art.)

3. ARTEKARITZA-KONTRATUA

Historikoki tradizionalak izan dira salgaienak, aseguruena, untzien interpreteak eta urezko eta lurrezko garraiokoak. Kontratua atipikoa da, nahiz eta artekari batzurenzako arau berezi batzuk badauden, adibidez, jabego higiezinako agenteentzat, aseguetako artekariarentzat. Aseguruena arloan bereizten dira: *aseguru-agenteak*, aseguru-etxe batekin merkataritzako agentzia-kontratu bat daukatenak, eta *aseguru-artekariak* (*agente libreak*, *mediadores*, *corredores*). Hauek ez dute aseguru-etxe batekin loturazko harremanik, kolegiatuta egon ohi dira (*mediador de seguros colegiado*) eta aholku profesionala eta inpartziala eskaintzen dute. Baina espainiar zuzenbidean kontratu hau atipikoa da.

Kontzeptuari dagokionez, artekaritza-kontratuaren bidez pertsona batek (bezeroak) hirugarren batekin harremanetan jarri eta kontratu egiteko beharrezko diren eragiketak burutzearen truke, beste bati (artekariari) ordaintzako obligazioa hartzen du. Artekariak ez du kontratu horretan parterik hartzen. Izaera zibil edo merkantilari dagokionez, betiko arazoarekin topo egiten dugu. MK 244 artikulua araberak, komisio-kontratua merkantila da alderdi bat merkataria denean eta merkataritzako egintza bat burutzeko egiten denean. Analogiaz gauza bera esan al genezake artekaritzaz? Orduan jabego higiezinako agenteen artekaritza zibila da ala merkantila?

Artekariaren obligazioak izaten dira bezeroaren instrukzioak sekretupean gordetzea, bezeroari bere kudeaketen berri ematea eta bezeroari aholku-ematea, inpartzialtasunez. Bezeroaren obligazioak dira artekariari beharrezko dituen datuak ematea eta saria ordaintzea. Eraitzako kontratua da, artekariak saria eskuratzeko eskubidea izango du bezeroak hirugarrenarekin kontratua egiten duenean. Hala ere gai honen inguruan izaten dira zenbait arazo.

- 1. Arazoa: bezeroak emandako agindua errebotatzea. Zein ondorio du horrek? Jurisprudentziak ez du onartzen MK 279 artikulua

aplikaziorik, honek ekar ditzaken lege-iruzurrak direla eta. Gainera, artekaritza-kontratua iraungi ondoren (adibidez, errebokazioagatik) artekariak harremanetan jarri dituen pertsonak kontratu-egiten badute, saria ordaintzeko obligazioak irauten du artean.

- 2. Arazoa: bezeroak saria ordaintzeko obligazioa du soilik kontratua egiten baldin bada. Baina egiten ez bada, artekariak ba al du erantzukizunik? Eraitza ez lortzeagatik bezeroari sortutako kalteagatik erantzule al da? Jurisprudenziaren iritziz, kontratu honen bidez, artekariak eraitza bat lortzeko (kontratu egiteko) *trafikoan ohikoak diren kudeaketak egiteko obligazioa hartzen du*. Horretara mugatzen da bere obligazioa. Ondorioz, kontratu ez egiteagatik ez du saria jasotzeko eskubiderik izango baina ezta erantzukizunik ere.

- 3. Arazoa: kontratua artekari eta bezeroaren artean egiten da, beraz, saria bezeroak ordaindu beharko du, dagokionean. Artekariak ez du bere bezeroekin bestelako loturarik, pertsona independentea da. Ondorioz, posible izango da bi bezerok egindako eskari kontrajarriak lotzea. Orduan, nori dagokio saria ordaintzea? Jurisprudenziaren iritzi, biei dagokie. Ondasun higiezinaren agenteen kasuan ere, salerosketagatik komisioa ordaintzea saltzaileari eta erosleari dagokie erdibana.

4. EMAKIDA-KONTRATUA

Kontratu hau atipikoa da, baina banaketa eta erosketa eskusibozko klausulak izaten dituenek, batzutan lehia kaltetzen dutenak, europar zuzenbidean badira zenbait arau kontratu hauek zilegi izateko bete behar dituzten galdapenei buruzkoak.

Emakida kontratuaren bidez enpresari batek, emakidadunak (*concesionario*), beste baten, emakidagilearen (*concedente*) produktuak -gehienetan markakoak direnak- baldintza jakin batzutan, erosi eta birsaltzeko konpromezua hartzen du. Horrekin batera hitzartu ohi du: produktu kopuru jakin bat erostea, zona geografiko zehatz batetan saltzea, salmenta osteko zerbitzua ematea, e.a.

Horrela, emakidadunak ekoizlearen (edo inportatzailearen) banaketa-sarea osatzen du. Produktuak merkaturatzeko, emakidagilea (ekoizlea, inportatzailea)

enpresari jakin batzutat (emakidadunetaz) baliatzen da, banatzaile ugarirekin kontratu-egiten ibili ordez. Bere aldetik, emakidadunak, enpresari independentea denak, intzentiboak izango ditu bere egitekoa betetzeko eta gainera, ekoizlearen izen onaz (markaz) baliatuko da bere jardunean. Hori dela eta, batzutan emakidagileak nolabaiteko kontrola eragiten du emakidadunarengan, bere ospe eta izen onari eusteko.

4.1. Edukia

Bere edukia kontratu deberdinetako zatiz osatua dagoenez, alderdiek itundutako baldintzek garrantzi berezia daukate. Gainera, oso normala da baldintza orokorren bidez egitea, beraz fede onak eta alde biren prestazioen arteko oreka izateak garrantzi berezia hartzen du. Aldebiko kontratua da (emakidagilea eta emakidaduna) eta iraupenekoa (zehaztua edo zehaztugabea).

Emakidadunak kontratuan ezarritako baldintzetan ekoizkinak eskuratu eta birsaltzea obligazioa hartzen du. Erosketa eta salmentako prezioen arteko diferentzietatik lortzen ditu bere etekinak. Ez dago ordainsaririk. Sarritan emakida-emaileak bere katalogoen bidez adierazten dizkio salmentarako prezioak, baina ezin dizkio inposatu. Lehiaren aurkakoa litzatekelako. Ekoizkinak irmoki erosten ditu (ezin dizkio ekoizleari itzuli) eta bere bezeroei saltzen dizkioe. Hau da, bere gain hartzen du ondasunak merkaturatzearen arriskua: gastuak (merkantzien harrera, almagazenean gordetzea, banaketa, bezeroen finantziaketa-baldintzak, e.a.) eta salgaien gaineko arriskua. Usu, salmenta ostean asistentzia emateko obligazioa ere hartzen du. Esklusibotasunezko klausulak ere izaten dira, beste enpresari batzuri ez erosteko obligazioarekin. Hala ere, itundu daiteke ez dela esklusibotasunik hausten eskaintza hobetuegia egiten duen beste bati erosteagatik ez eta emakidagileak hornitu ezinean, beste bati erosteagatik.

Emakidagilearen obligazioak izaten dira: ekoizkinak saldu eta hornitzea, agindutako baldintzetan; esklusibotasunezko klausula errespetatzea, hau da, zona geografiko bereko beste enpresari batzuri ez saltzea, eta ekoizkinen bermea ematea.

4.2. Iraungipena. Agentzia-kontratuaren aplikazio analogikoa

Iraungipenari dagokionez, kausak kontratuan bertan ezarri ohi dira. Batzuetan kontratuaren iraupena ez da zehazten eta Problema izaten da kontratuari amaiera ipintzerakoan, banatzaileek ordainketa nahi izaten dutela egin dituzten inbertsioagatik eta erakarritako bezeriagatik, bereziki denbora finkorik gabeko kontratuetan. Eremu honetan ohikoa da alderdiei unilateralki desistitzeko ahalmena ematen dien *ad nutum* klausulak ezartzea. Dena den, hauetaz baliatzeko fede onez egin beharko da: aurreabisuarekin eta eskubideaz abusurik egin gabe. Bestela, aurreabisurik ezean edo abusurik egon bada, kontratua iraungi egingo da, baina fede txarrez jokatu duen alderdiak kaltetuari indemnizazioa ordaindu beharko dio. Hori da jurisprudenziaren iritzia. Gainera, kasu batzutan, enpresari nagusiari eskuratu duen bezeriagatiko indemnizazioa ere ezarri izan dio, Agentzia Kontratuaren Legeko (12/1992) 28 artikuluaaren aplikazio analogikoa eginaz. Hau eztabaidatua dagoen gai bat da.

Emakidak baditu antzekotasunak agentzia-kontratuarekin: egonkorra da, iraupenezkoa, bi enpresarien arteko lankidetzaz edo kolaboraziorako kontratua da, emakidadunari *'agente'* deitu ohi zaio. Baina baditu desberdintasunak ere: agentzia kontratuaren objektua besteren kontura eragiketarako sustatzea da eta emakidaren objektua, berriz, ondasunak banatu edo birsaltzea. Emakidadunak bere kontura eta bere izenean jarduten du eta ez du emakida-kontratuagatik inolako saririk kobratzen. Ondasunak erosi eta birsaltzetik lortze nditu etekinak.

5. FRANKIZIA-KONTRATUA

Kontratu hau oso hedatua dago eskaintzen dituen abantailak direla eta: kontratu egiteko formula malguak daude, frankizia-emaileak enpresari txiki ugariaren lankidetzaz bereganatzen du sistemari arrazionaltasun ekonomikoa emanaz, berak kontrolatzen ditu frankizia-hartzaileak eta hauek bere gain hartzen dituzte arrisku ekonomikoak. Sare-sistema eta arriskuen banaketa honi esker, suposatzen da kontsumitzaileei produktuak merkatuko baldintza hobetoekin (merkeago) iritsiko zaizkiela. Kontratu atipikoa da eta, oso malgua denez, eduki oso desberdinak izaten ditu. Frankiziaz osatutako sare hauek batzutan Europar Batasuneko Justizia-Auzitegiaren zigorra jaso dute merkatuko lehia kaltetzeagatik (Ik. *Ives Rocher*, *Ives Saint Laurent*, *Pronuptia* aferak).

Kontratuaren edukia ‘*enpresa-lizentzia*’ deituriko dokumentuan gauzatu ohi da. Frankizia-hartzaileak bere jardueraren arriskua hartzen du eta *frankizia* edo *kanon* bat ordaintzen du (ohikoa da sarrera eta aldiroko ordainketak egitea) *franchising-paketea* erabiltzeagatik. Normalean salmenta bolumenaren arabera ezartzen da kanon hau. Definizioa LOCM 62 artikuluan jasotzen da baina ez du kontratuaren edukirik arautzen. Arau sustantibo eta administratiboak nahasten ditu, tartean ‘*Registro de franquiciadores*’ delakoa ezarriaz (<http://www.mcx.es/Franquicias/principal.asp>).

Frankizia-emaileak hainbat elementu ipintzen ditu frankizia-hartzailearen eskura: lizentzia, marka, erroltulua, izen komertziala, zeinu bereizleak, e.a.; ekoizteko edo komertzializatzeko prozedura erakusten dio, *know how*; merkatu batetan sartzeko aukera ematen dio, aukera pribilegiatua frankizia-emaileak baduelako jada ezaguna den izena eta ospea; hornidura estandarizatua bermatzen du; etengabeko asistentzia ematen dio edukin anitz izan dezakena (marketing, management, langileen formazioa, languntza kontablea, finantzieroa, iragarpena, informatika, e.a.)

Guzti horren trukean kontrola ezartzen du frankizia-hartzailearengan. Jarduera zein izango den zehaztu eta mugatzen du, merkatuko bere estrategien garapenera zuzenduaz. Frankizia-hartzailearen jarduera eta eremua zeintzuk diren (eta zeintzuk ez diren) ezartzen du. Marka eta gainontzeko ondasun ez-materialak transmititu eta erabiltzeko baldintzak jartzen ditu. *Know how* delakoaren transmisioa egiten dionez, honek baldintzatzen ditu ekipamenduko ondasunak, enpresaren baliabideak, komertzializazioa, e.a. Establezimendua nolakoa izango den, bere ezaugarriak, finkatzen ditu. Kontraordaina galdatzen dio: sarrerako prezioa eta aldiroko kanon batzuren ordainketak. Gauzen hornidurari buruzko aspektuak ezartzen ditu (eduki beharreko odasun-gama, gutxienezko stock bat, e.a.) eta baita hirugarrenekin komertzializatzeko baldintzak ere. Laguntza teknikoa ematen du edo zein izan behar duen agintzen du (laguntza administratiboa, kontablea, informatikoa, finantzieroa, aholkularitza, e.a.). Azken finean, frankizia-emaileak esku-sartzeko, aginduak emateko, kontrolatzeko eskumen handiak gordetzen ditu, sare edo kateak merkatuan duen irudia eta ospea mantentzeko interesen defentsan oinarrituz.

Funtsean metodo eta irudi bateratua duten ekoizkin edo zerbitzuen marketing sistema osoa transmititzen da. Transmititzen da marka eta *know how*, frankizia-emailearen asistentziarekin eta bere kontrolpean. Frankizia-hartzaileak bere gain

hartzen ditu ekoizkin edo zerbitzuak merkatuan jartzeko arriskuak. Bien arteko harremanak eskusibitatezkoak izan ohi dira. Bere helburua unitate ekonomiko eta funtzional bat eratzea da. Helburu horrekin egiten dira enpresako ondasun ez-materialen lizentzia-lagapena eta sistema berean dauden enpresen artean, barneko eta kanpoko funtzioen banaketa.

Beste antzerako kontratuekiko bereizketa batzuetan ez da erraza, adibidez emakida-kontratuaren kasuan. Frankiziazko establezimenduen ageriko itxura sukursal batena da. Hemen menpekotasuna (ekonomikoa), lankidetzaren eta kanporantzako irudia bateratua emakidan baino nabarmenagoak dira, *'komertzializazio sistema oso bat'* eratzen dute. Agentzia-kontratuarekiko desberdintzea errazagoa da, agenteak mandatu-emaiaren kontura eta haren izenean jarduten bait du komertzializazioaren arriskuak bere gain hartu gabe. Bestalde, banaketako eta antolaketako kontratuen tarteko bat izanik, baditu beste zenbait kontratuen elementuak: jabetza industrialeko lizentzia-kontratuenak, ordezkapeneko kontratuenak, asoziaziozkoenak (enpresataldeko harremanak).

6. GORDAILU-KONTRATUA

Kontratu honen bitartez pertsona batek gauza higigarri bat jasotzen du, gorde eta eskatzen zaionean itzultzeko obligazioarekin. Merkataritzako izaera izan dezan galdatzen da gordailuzaina profesionaltasunez jarduera horretan aritzea, edota gordailaturiko gauzak merkataritzan erabiliak izatea (MK 303 art.).

Kontratu hau beste kontratu batzutara loturik egon daiteke (ad: salerosketa, garraioa, komisioa). Izaera errealeko kontratu hau gordailuzainari gauza entregatzean perfektutzen da (MK 305.art.). Edukiari dagokionez, **gordailuzainaren obligazioak** dira: gauzak zaintzea (gauzek bere erruagatik jasaten dituzten kalteen erantzule da) eta gauza itzultzea, beren fruituekin, gordailugileak eskatzerakoan (MK 306. art.) Bestalde, **gordailugilearen obligazioak** dira: ordainketa egitea (MK 304.art.) eta, bere kasuan, kalte-galerak ordaintzea (KZ 1779 art.). Gordailuzainak gauzak arretutzeko (erretentzeko) eskubidea du, gordailugileak ordaindu arte. Merkataritzako Kodeak ez du ezer esaten honi buruz, baina Kode Zibileko 1780 artikulua aplikatzen da modu supletorioan.

Bi gordailu mota bereizten dira: gordailu erregularra, orain arte ikusitakoa, eta gordailu irregularra. Honetan, gordailuzainak gauza berbera itzultzeko obligazioa hartu ordez, gauza suntsigarrien kasuan, haien jabetza eskuratzen du. Beraz gauzak erabil ditzake, kontsumitu, espezie eta kalitate bereko beste hainbeste gauza itzutzeko obligazioarekin. Kontratu hau berez gordailua ote den eztabaidatzen da. Baditu antzekotasunak beste kontratu batzurekin: maileguarekin (KZ 1768 art., MK 309 art.) edota komisioarekin.

7. MERKATARITZAKO KONTU KORRONTE-KONTRATUA

Kontratu honen bidez, bi merkatarik itun egiten dute beren harreman komertzialen ondorioz elkarrekiko sortutako kreditu-eskubideak konpentsazio bidez kitatuko diuztela. Kontratu hau beste bati gehitu egiten zaio (ad. hornidurazko harreman bati edota bankuko kontratu bati). Kontratu honek zenbait funtzio betetzen ditu, merkatarientzako interesgarri direnak. Batetik, eragiketak sinpleagotzen ditu, ordainketa eta kobru anitz egin ordez eragiketak kontabilizatu egiten direlako azkenean saldo bakarra finkatuaz. Bestetik, berme-funtzioa ere badu, alderdi batek eginten dituen entregak berari kontabilizatzen zaizkion kredituak ordaintzeko atsekiturik geratzen direlako.

Hala, bi merkatariren arteko mugimenduak (ad. hornitzaile eta bezeroaren artekoak) kontusail bikoitzen bidez kudeatzen dira ('zor' eta 'hartzeko'). Beren arteko zorduntzeak (karguak) eta ordainketak (abonuak) kontuan ezartzen dira. Baina egoera kontable hauek berez ez dute inolako ondorio juridikorik sortzen. Horretarako kontratu bat egin behar da, kontu korrante kontratua, alegia. Horren ondorioz, alderdiek zin egiten diote elkarri kontuan ezarritako krediturik ez galdatzea eta, aldian behin edota kontratua amaitzerakoan, dagokion saldoa finkatzea eta ordaintzea, hau da, 'Zor' eta 'Hartzeko' kontusailen arteko konpentsazioa egindakoan.

Kontratu hau atipikoa da (MK 909.6 eta 7 artikuluan aipatu arren), adostasunezkoa, ez du forma berezirik eskatzen eta iraupenezkoa da. Doktrinan eta jurisprudenzian eztabaidatzen da bi pertsonen arteko harremanak kudeatzeko kontu korrante kontratu hauek eta bankuko kontu korronteak gauza bera ote diren ala ez. Espainiar doktrina eta jurisprudenziaren gehiengoa bereizketa egitearen alde agertzen da. Hauen iritzi, merkataritzako kontu korrontearen bitartez bi pertsonak (merkataria)

elkarri kreditu ematea adosten dute kontua itxi eta saldoa finkatu arte eta hau ez da gertatzen bankuko kontu korrontearen kasuan. Kontratu honen funtsa den elkarri kreditu emateak honako efektuak sortzen ditu:

- Kredituak geroratu egiten dira. Ordainketak edo entregak egitearen ondorioz, elkarri emandako kredituak galdaezinak eta xedaezinak bihurtzen dira alderdiek esandako momentura arte, hau da, kontua itxi arte. Beraz, ordurarte ez da sortzen kredituen berandutzarik ez eta ordainketa galdatzeko akzioaren preskripzio-eperik ere.
- Alderderdiek (batek behintzat) elkarrenganako kredituak kontuan anotatu behar dituzte.
- Konpentsazioa aldiro egiten da, epealdiaren amaieran, kontua isten denean. Kreditu guztiak konpentsatu egiten dira eta saldoa ezartzen da. Orduan erabakitzen da nork nori zer zor dion.

Hauen iritziz bankutako kontu korronteak ez ditu efektu horiek sortzen.

- Entregak inmediateki xedagarriak dira, beraz alderdiek ez diote elkarri krediturik ematen.
- Bankuak bezeroaren aginduz, haren ordainketa eta kobruak gestionatzen ditu.
- Konpentsazioa jarraiangoa da, egiten den eragiketa bakoitzeko saldoa ematen da automatikoki eta xedagarria den kopurua adierazten da.

Doktrinaren gutxiengoa, berriz, tesi bateratzailearen alde agertzen da. Alderdiek elkarri kreditu-ematea kontratuaren funtsezko elementua denik ukatzen du eta figura hauen oinarrian elementu berbera dagoela iritzi dio: *kontu korronteko ituna edo hitzarmena*, alegia. Kritika egiten diote *kredituaren teoriari* esaten duenean merkataritzako kontu korrontean alde biek elkarri kreditua ematen diotela eta bankutar kontu korrontean berriz, alde batek (bankuak) besteari kreditua ematen diola. Bi kasutan kontratukideen egoerek gora-beherak izaten dituztelako (zordun/hartzekodun), gainera batez ere bankuko kontu korrontetan gertatzen da hori eta ez horrenbeste merkataritzakotan. Hauetan gehienetan alderdi bat izaten da zorduna eta bestea hartzekoduna. Beraz, nola esan elkarri kreditu ematen diotenik? Kontu korrontean sartutako kredituak ez dira galdagarriak, ezta xedagarriak ere, ekitaldia itxi eta konpentsazioaren ondorioz saldoa zehaztu arte. Baina hau ez da elkarri kreditu ematearen ondorioa, beste itun-mota bat da: alderdiek zin egiten dute kontua itxi arte elkarri ez diotela galdatuko gehiegizko eta guutxiegizko egoerak

(‘*superavit/deficit*’) orekatzea. Kritika hauek direla eta doktrina berritzaileak ez du ikusten bi kontu korronte motak bereizteko irizpide nahikoa.

7.1. Kontratuaren edukia eta efektuak

Kontu korronte kontratuaren oinarrian beste harreman negoziial bat egoten da, kausazkoa. Hartatik jaiotzen dira kontu korrontea osatuko duten kredituak eta ordainketak. Azpiko harreman hau izan daiteke iraunkorra (hornidura, bankuko kreditu-irekitzea, gordailua, *factoring*) edo traktu bakarreko kontratu anitz (salerosketarako edo garraiorako komisio anitz). Oinarrian dagoen kontratuan erabakitzen dute alderdiek beren aldeko kopururik ez xedatzea, ez erabiltzea. Oro har kontratu biak batera egiten dira eta kontu korrontek kontratu-marko baten barruan jasotzen den itun edo klausula osagarriaren egitura hartzen du.

Kontu korronte kontratua tresna kontablea eta juridikoa da. Alderdiek harreman negozialetik sortzen diren kreditu eta diruzko prestazioak (ordainketak) modu zehatz batetan kudeatzea akordatzen dute. Hain zuzen, erabakitzen dute:

- kontu korrontean elkarri egindako zein ordainketa eta kreditu jasoko diren
- kontuan sartutako kredituak konpentsazio bidez iraungiko direla, hau da, egindako ordainketek efektu solutorioa (iraungikorra) konpentsazioa egiterakoan izango dutela
- denboraldi bakoitzaren amieran alderdiek saldoaren zehaztapena egingo dutela

Kudeaketa honen helburua da harremanak sinplifikatzea (ordainketak sinplifikatu, saldoarekin kreditu bakar bat ezarriaz) eta baita bermea izatea ere, norberaren kreditu-eskubideak kontuan jasotako zorrak ordaintzeko erabiliko direlako. Kontu korronte kontratuaren objektu dira harreman negozialean jatorria daukaten entregak, (ordainketak, alde batek besteari ematen dizkion ondaretar prestazioak) eta kreditu-eskubideak. Kontu korrontean sartzeak zenbait ondorio ekartzen ditu:

- Ez dute beren izaeran eta existentzian eraginik jasaten, kontuan sartzekoan ez dago inolako nobaziorik.
- Xedaezinak eta galdaezenak bihurtzen dira (EZ geroratuak).
- Ondorioz, ez dute berandutzagatik interesik sortzen (interesak sor ditzakete ordea, ordainsari gisa) eta preskripzio-eperik ere ezin da kontatzen hasi.

- Kreditu hauek kontu korrante kontratuan ezarritako konpentsazio bidez ordainduko dira. Beraz, hauen konpentsazioa konbentzionala da eta ez zaizkio Kode Zibileko kredituen konpentsaziorako araurik aplikatuko (KZ 1195 art. e.o. Adibidez, KZ 1196.3 eta 4 artikuluko baldintzak: '*vencidas, liquidas, exigibles*' edota kredituen konpentsaziorako ezartzen den iherarkia, bermedun kredituen lehentasuna).
- Ordainketek kontuan sartu ondoren ez dute efektu solutoriorik izango konpentsazioa egin arte.

7.2. Kontua ixtea

Kontu korrante kontratuaren kausa nagusia da alderdiek elkarri promes egiten diotela beren entregak eta kredituak elkarrekiko dituzten zorrak ordaintzeko erabiliko dituztela. Horrela lortzen dute bien arteko negozio-harreman iraunkorretatik eratorzen diren zorren kitapena sinpleagotzea eta bakoitzaren zorrak beren kredituekin bermatzea. Helburu hauek lortzeko konpentsazioa egitea ituntzen dute eta konpentsazioaren ondorioz:

- ordainketen efektu solutorioa gertatzen da, kredituak iraungi egiten dira, eta
- iraungi gabeko kopuruak *kreditu-eskubide* eta *zor* bihurtzen dira

Gehiengoaren iritziz konpentsazioa *aldira* egiten den zerbait da, kontratuan itundutako denboraldi-amaieran, kontua isterakoan. Orduan konpentsatzen dira anotatutako kredituak eta ordainketak (kompentsazio finala) eta saldoa kalkulatzeko da. Hauek diotenez, ez da gauza bera gertatzen bankuko kontu korrantean eta horregatik ikusten dute beste kategoria kontraktual bat bezala.

Honi kritika egiten diotenen iritziz diote kredituen iraungipena eta ordainketen efektu solutorioa ez dela saldoa ezartzearen ondorio automatikoa, alderdiek, denboraldi baten barruan, elkarri prestaziorik ez erreklamatzeko zin egitearen ondorioa baizik. Horregatik hauek *aldiroko* konpentsazioaren ordezt *jarraiango* konpentsazioa proposatzen dute: konpentsazioa automatikoki egitea, kontusail berri bat egiten den bakoitzean (kontabilitate informatizatuak edozein kontu korranterentzat posible egiten du hau). Saldo aldakor bat daukagu orduan, mugikorra, une bakoitzean zehazten dena, konpentsazio korrante edo jarraituaren ondorioz. Proposamen honek zenbait abantaila ditu. Batetik, eragiketa bakoitzeko saldoa zehaztea ahalbidetzen du behin-behineko kredituak kronologikoki konpentsatuaz. Gainera hau ez da konpentsazio final

bat egitearekin bateraezina. Konpentsazio finala egin daiteke alderdien borondatez (hauek aldiro kontua istea ituntzen badute) edota nahitaez (ad. konkurtsoa gertatuko balitz).

Ondorioz, *aldiroko* konpentsazioa eta *jarraingo* konpentsazioa ere ez dira merkataritzako eta bankuko kontu korronteen arteko bereizketarako irizpide egokia. Kontuak ez dira beti *aldiro* konpentsatzen (merkataritzan), edota beti *jarraian* (bankutan). Kontu korronte bidez kudeatutako eragiketa bankarioen konpentsazioak (gestiozko eragiketak, kreditua, deskontua, e.a.) aldiro izaten dira (ad. hilabetero, hiruilabetero). Orduan egiten da kitapena interesak ordainduaz, komisioak kobratuaz, e.a. Jarraian kontu-laburpenak edo saldoak igortzeak informaziozko funtzio soila du, bezeroak xedagarri dituen fondoak kalkula ditzan. Bestalde, xedatzeko ahalmena ere ez da kontu korronte kontratutik eratortzen den zerbait, oinarrian dagoen banku eta bezeroaren arteko negozio-harremanetik sortzen da.

Kompentsazioarekin kredituak iraungi egiten dira eta saldoa zehazten da (KZ 1202 art.). Kontratugile batek besteari kontu-laburpena igortzen dio adieraziaz ekitaldi kontablean zehar burututako eragiketa guztiak, komisioak, interesak ... eta saldoaren kopurua. Azken hau kontratu-eskaintza bat da. Saldoa ezartzeko alderdien akordioa behar da. Akordio honek kontratu izaera du eta kontu korronte kontratutan klausula moduan agertzen da. Alderdi batek kontratu-eskaintza bidaliko dio besteari (saldoaren kopurua) eta beste alderdiak onetsi egin behar du nolabait espresuki, tazituki, egitatez.

Akordio honek efektu berritzailea du, kreditu berri bakar bat eratzen bait da (KZ 1254, 1204 art.). Ezarritako saldo berriak azpiko harreman kausaleko saldoa (zor/kreditua) ordezkatzeko du. Hartzekodunak judzialki saldoa erreklama dezake, azpiko harremanagatik hartzeko duen kreditua frogatzen ibili beharrik izan gabe. Saldo honetatik eratorriktako kreditu-eskubideak bere preskripzio-epe propioa du, 15 urteko epe orokorra (KZ 1964 art.). Saldoa ezartzearen negozioak akatsak (bizioak) izan ditzake, adibidez konsentimenduko akatsak, errorea esate baterako (ad. zenbait partida ez direla kontuan sartu). Akats hauek ez dute negozioaren existentzia galerazten, deuseztagarritasunezko akatsak dira eta honi dagokion akzioak lau urteko preskripzio epea du (KZ 1301 art.).

Esan bezala, itundutako epea amaitzean kontua itxi egiten da, saldoa zehaztu eta onartu. Orduan saldoa galdagarria eta xedagarria (epemugatutako obligazioa) bihurtzen da. Honek ez du kontratua iraungitzen denik esan nahi, epealdi bat amaitu dela baizik. Jarraipenezko ituna baldin badago, saldoa (eta, bere kasuan, dagozkion interesak) hurrengo ekitaldiko lehen kontusaila osatuko du.

7.3. Kontratuaren iraungipena

Kontratuen iraungipen-kausa orokorrean gain (ad. itundutako epea amaitzea, alde biren adostasuna, heriotza, ezgaitzea, konkurtsoa), kontratua denboraldi mugagaberako bada, alde bakoitzak kontratua salatzeko ahalmena daukala onartzen da, beti ere besteari dagokion aurreabisua eginaz. Alderdiek kontratua salatzeko baldintzak ezar ditzakete, beti ere fede onaren printzioa oinarri hartuta (KZ 7 eta 1258 art, eta MK 57 art.). Edozein kasutan, kontratua iraungitzeak kontua ixtea dakar eta saldoa finkatzea, galdagarri bihurtuaz.